Laiñoak eta odolak maiz illundu dute olerkariaren barrua. Argi-izpirik ere agiri du noizbeinka. Laiño, odol eta argitan jori-mamitsu datozkigu bere neurtitzak. Leen baiño ederrago biribildu ditu zenbait ahapaldi. Adimenlege utsez tajutuak batzuk eta biotz-ondo beroz azalduak beste batzuk.

Latiñezkoak zorrotzak eta mingotsak. Gallegozkoak, aldiz, bigun-gozoak. Galizia'ko izkuntza menderatu - ala, igali ederrak ekarri ditzake arlo orretan ere, gerogarrenean.

Oraingoan, "gero" dionak ez bide du "bego" esan bearrik.

Etxebarria'tar
Juan Angel

Laiño - Odoletan

Imp. TELLERIA - Erandio - Dep. Legal: BI-687-1976

Ene abestia,
onezkero ez dit ajolarik,
iñorgana eltzen ez ba'zera ere,
iñork ezin izango bai zaitu abestu
neuk bezelaxe.

Giovanni Boccaccio

(Il Decamerone-Laugarren jardunaldia-
Amargarren Erasketa)

NIRE BIOTZA

Nere Erraietan

Nere erraietan egingo
dizut kabi atsegiña,
irritsez xurga dezazun
nere bizitz-irakiña.

Nere oroitzapenaren
belardi goxoan etzan
ta ba-dukezu ats-aldi
bide luze-neketsuan.

Iturri-jario ixilla
antzean nere biotza,
tai gabe goza dezazun
zure egarri asegaitza.

Begietan

Laztandu eidazuz
begi nekatuok.
Alaitu begiok
gozoro ikutuz.

Nekatu bai yataz
gogo-itunaren
indarrari eusten,
laztanen ametsaz.

Algorta'n, 1974-ko zemendiaren 21-gnean.

Begien Poza

Lur elkorraren ama-sabela
zirrituz bete, so zerurantza,
ur-tanto baten eske. Bidazti-
tamala, bedar-izpirik eza.

Ur oparoa zerutik eror
eta ama lurra ernaldu. Lore
bat bidaztien pozgarri. Berriz
lur-jabearen ezpanak barre.

Nire oiñazeen zirrituetan
zeure itz gozoak jautsierazi.
Luzaro gabe ba-dakuskezu
begion poza, lore pozgarri.

Algorta'n 1974-ko urrillaren 26-gnean.

Zeatza

Gorputz ñimiñoa gogo me-zuura.
Ibilkera ariña, soin-igikuna
aztagea, neurriz. Begirakuna
erdiz sotilla ta erdiz maltzurra.

Izkera patxadaz eta samurra.
Parrea alai ta erdi ituna.
Egokera, aldiz, bare-bakuna.
Izana erdiz su, erdiz edurra.

Ba-zoaz ta bertan itxiten duzu
soin-abots ta gogo-itzal zati bat.
Etorri-aldian zugaz dakarzu

par-irri gozoa ta, arimarentzat,
gogo-oxin bete, sakon-itzaltsu.
Joan ta etorri, olan gura aunat.

Itz eta Bits

Itsas-ertzeko olatuak lez
gogo-ondartzara eldu zayataz.
Ondar kizkaliz nengoan legor!
Ta ur otza amets neban lilluraz.

Ondar kizkali onen su baltza!
Amets utsa da ala lillura
utsa? Barruko erre-bear au,
zuk narabilzu kizkal-bakarra.

Zure izketa ta irriñoa
etorri dira murmurio geldiz
nire ertzeraiño. Errea busti
ta agurka doaz, geldi, bits zuriz.

Euskaldun Arreba

Ibilkera leun ta gorpuzkera gurbil.
Izkera gozoa, begia gardena.
Gogoa samurra, gorputza lerdena.
Ezpanak ertsiak, atzamarrak zintzil.

Zure egote utsaz, jarri arren urbil,
urrun naramazu gogo-lur barrena.
Zeure miña gorde ta nire jarduna,
oi miñaren miña!, dantzuzu uzu ta ixil.

Arantzaz zein lorez josi nire izketa-
aria, sen baten dakizu egoten.
Atzoko itz-aldia ezkeroztik txerta

daustazu izerdi barria ta kemen
iraunkorra dizut. Ordain-gogoeta
zor neutsun-ta: euskal arreba zaut, Miren!

Garden

Nire iturburua
agortu zorian,
nire urbera geldi
soñu barik joian.

Ertzetako orlegia
illun islatuten,
nire amets-txoriak
urruna amesten.

Bidearen bakarra
ur-ezaren lagun.
Iñoiz jaio ez ba'nintz
ez nengoke itun.

Alako baten zure
ur-jauzia bitsez
zear-bidera yatan
mosuz, ustegabez.

Ba-noa aurrera ta ur
lodiaren gainka
zure bits gardenaren
aria diz-dizka

Zure abotsa

Zure abots alaia
nire zelai igarren
edergarri bakuna
betirako izanen.

Zure abots gozoa
nire baso itzaletan
gozagarri bikaiña
goiz eta arratsaldeetan.

Zure abots-ibaia
nire bizitzan barna
betegarri osoa.
Zure abots, kutuna!

Zugan

Zugatz egarritu ta igarraren
antzera, bizitza-zelai joritik
erauzi nazaten bildurragaitik,
zeure errai ezeetan naz tinkoturen.

Sustrai gosetiok zeugan loturen,
zeure ur gozoaz ase-beterik,
bizitza-izerdi billakaturik,
lore ta igali ederrak daiten.

Baratzeko jauna etor daitela:
jo aizkoraz nire enbor gogorra,
bota azkar sutara nire ezpala.

Pozik dantzatuko nire txingarra,
ikusirik zure bizi yaukala
ta zure igalien altxor ederra.

NIRE GOGOA

Egutera

Bizitzako gora-bêrak
astinduta, odei beltzez
jarri da gure zerua.
Argia gugana nekez.

Ekaitza sortu ta gero
dana illun eta goibel.
Barnetik atera iñor
ezin iñolaz ere el.

Neu, berriz, ekaitz artean
poz eta lasai; gomuta
zar-gozoak gorde dituteta gogoan biztuta.

Ez ta bai

Ez nabe maiteko
ezagututen ez
nabenak. Besteak
aurka edo aldez.

Batzuk adizkide
moduan ta beste
batzuk etsai legez,
goian naukakete.

Nor?

Nor
zan
an
gor?
Orrek
ez ta,
ia,
zuek...
Gu ere ez.
Or beste
bat. Gazte:
zu ezetz?
Emen iñor
ez da agertzen
ta goazen
ara bizkor...
Lagunak, ara:
iñork ez dau nai?
Desagun alai:
"gor-zor bat dira".

Gogo Itsua

Amaika burruka-aldiz,
neure yoran oni jarrai,
neure yoran onek bultza,
ase nagotzu t'egarri.

Amaika zauri artuta,
gogoa odol-jario.
Amaika erasoaldi
egiñaren bozkario!

Gau baltzean dut gogoa,
gogo zauritu-itsua.
Yoran min au, laiñoz galdu
ta alan be argiz bildua!

Oztiña

Gaurko eguraldi
urdiña sartu yat
odolean barna
aize epelagaz bat.

Zeru alde dana
garbi ta oztiña.
Begietan zear
gogoan dut miña.

Bake-egazkada
nabari dut barne
ta kanpo. Alderrai
nabil, biotz-erne.

Gaurko eguraldi
urdiña, zeru-gain
oztiña, eztitan
azal eta mamin.

Itsas-Ondoan

Itsaso zabal, egon-eziña,
ondartzan jaio ta sakonean
murgiltzen duzu zure samiña
ala barrutik zatoz arean

zure pozezko barrea agertzen?
Itsaso sakon, muga-gabea,
gizon bortitza lez laztanduten
zatoz maiteki ondar emea

ala andra bigun lez legorrera
zatoz mosuka, maitasun-gosez?
Itsaso, itsaso, zeure antzera
naz poz ta negar, maita-bearrez.

Algorta'n 1974-ko zemendiaren 11-gnean

Goizalde

Gau illunak bete daust gogo-lurra.
Bizitza geldi yat gogo-barnean.
Begiak itxi ta lo itzalean.
Erio-ikara lagun bakarra.

Lo, lo, ta ezin il barruko arra.
Lagunak ala ni nago iltamuan?
Ur bat doa nire eremuetan.
Bizigarri ala ur beltz, ilkorra?

Ez dut nai iñora urratsik egin.
Ez bedi iñortxo etor nigana.
Ementxe geldirik, eriotzan zain.

Bizi-bearra zein yatan ituna!
Erdu eriotza, nire atsegin.
Bizi-gauak bekar zure eguna.

Algorta, 18-XI-74.

Gabean Oiu

Gabean billatuko zaitut,
illunak zapal nazanean,
ezkutu beldurgarriakin
oztopoz ibil nadinean.

Otso gaiztoak uluka ta
inpernu-iratxoak algaraz
nabari dagidazanean,
neure buruagazko izuaz,

azken garrazi latza jaurti
dagidanean, zu arki ez
ta usmatu ez arren, erantzun
bederen: Pakean il zaitez.

Itsasontzi Zarra

Aspaldikoen gaztaro-amets,
oraintsukoen zartzaro-oroipen,
ainbat ur-bide, lurralde ikusiz,
zarraren zarrez ondartu emen.

Urrutiaren bildur, agian,
bazter batean zatzaz luzaro.
Ondakin zarrak atondu-asmoz
langilleak or dabiltz berriro.

Ainbeste ibil-bide egiñik,
gogoa oroi zarrez dut bete.
Lengo lokarriz kaian lotuko,
ala itsasora ausartuko ote?

Odoletan

Bere ibillaldi luze-
geldia eginda sartzen
doa eguzkia mendi-
ostean diz-diz baten.

Inguruak illun jarri,
oldozketan, sorgor, ixil.
Ta bere ertzetan, odolez,
bizitasun guztia bil.

Nire gogo-ortzean ere
gogai nausia, urrun-
asmoz, odoletan mintzo:
—"Odola nere eder-lagun".

Iñularra

Eguzkiaren garrak amatau
dira ta soillik bere illinti
goria dager itsas-gaiñean.
Lur-gaiña illun eta dardarti.

Odei urrunak eguzkiazko
orban-jario zeru-goietan.
Kadentsu dago itsas zabala
ta zizpuruka ari da atxetan.

Itsasontzi bat doa, urrutira,
ezkutukizko sakona urratzen
sendo ta astiro, izuagaitik
gora ta bera kulunkatuten.

Olantxe nere gogoa aurrera,
ezkutuaren aurrez aurre eta
gora ta bera kulunkaz doa,
bildurrarren joz bere illeta.

Piñudia Laiñotan

Eguna laiño artean
agiri yaku goizetik.
Mendi-zelaiak otz-illun,
gizadia astitsu-ixillik.

Arratsaldean epeldu
da giroa inguruetan.
Laiñoa lurretik jaso
ta kokatzen adarretan.

Neure lurra alantxe laiñoz
estali nuen antxiña.
Oroi gozoak berotuz,
oi gozoaren samiña!,

ta ba-dijoa goruntza
laiño-moltsoa geldika.
Alan be, gogo-ertzetan
samin bat dut dingillizka!

Iretargi betea
zeruko zabaldian,
bakartasun-pakea
ene gogoan.

Ortzean izarrik ez,
laiño-maindire otza
bere ikutu leùnez
aren gain datza.

Oroitzapen-lurruna
nere izar bakarra,
Aberri-maitasuna,
biltzen, goiztarra.

Illargi nagusia
zeruan laiñoz dabil.
Barnez dut Aberria,
ta itun bat zintzil.

1975-ko dagonilla.

Itsasontziz...

Itsasontzi bat ba'neu...
urruti-min jarriko
neuskio izen ta itsas-
zabalera betiko.

Iñungo lurretara
eldu barik nenbilke.
Kresal-usaiña artuz,
barruz garbi ta azke.

Nere maitasuna izar
eta ugiñai emon.
Eta garbi ta azke
ez diranak or konpon.

Itsasontzi bat ba'neu,
oial itxaropentsu,
arraun maitatiz jantzi
ta itsasora kementsu.

Itsasontzi bat ba'neu,
Ludi guztia itsaso
egingo nuke, garbi
ta azke urrunera so.

"Et Gavisi sunt Gaudio Magno Valde"

Urrundik etorri ta bidearen
nekez atsedena dabe bearra.
Jainkoa aurkitu ez ta negarra
Erregeen barruan asi da sortzen.

Etxeko epela urruti zuten,
ezezaguna bertako lurra.
Soin ta gogoetan neke minkorra.
Beso ta begiak norantza zuzen?

Bereala izarra dute gidari.
Biotza dardarez, begiak bizkor,
Josu aurra zaie zeru-ikuskari.

Urrutiko lurrez, bidea gogor,
barnea miñetan, ene errukarri,
etorri zakidaz Josu, izar pozkor!

"Deus meus, ut quid dereliquisti me?"

Egun bateko poz urria eman
didate gizaldrek joan-etorriz,
Nor nazan oldoztu ez ta arinkeriz
diardute beti nor ta zer diran.

Ez diet lagundu nor-erregetzan,
ez ditut asetu andinai-ogiz;
akar egin diet izketa larriz.
Lotu naute beren ezezpenean.

Masailleko-iraiñez narabilte egun.
Nire zer guztiak zotz dagizkite.
Edaritzat eman beren beazun.

Bitartean Zuk ni azturik ote?
Lurra ikaraz, zeru-aldea illun.
Makur nadin, zure gogoa tente.

"Ergo tu es Rex?"

Giza-andinaiak oro-nausitza
erakarri gura eskuetara.
Barru-kanpoetan oro menpera
naiez arrokeri darabil giltza.

Iñoren iritziz azken ba'datza
ere, begi-lausoz, jartzen da bera
lenen. Baiña arroak ezin ingura
bazterrak ta bere burua utsa.

Kristo, aldiz, otzan ta ezti dager.
Bijoaz gizonak griñei jarraituz.
Aren agintea onarren eder.

Buru-ukatuz azken. Gizonak aulduz
indar ta naikeriz or dira iltzer.
Giza-arro-utsari Kristo nausituz.

NIRE LURRA

Ongi Etorri

Plaza de Moraza'ko Ardantegia
Bilbo'n.

Kale-ertzean "Ongi Etorri"
zarata bage, illun ta ixil.
Barrua euskal erara apain,
atean argi gorri bi zintzil.

Atzeko orman Euskalerriko
mapa zabalik, gure zugatza
lauki batean eta salmaian
ugazabandra ixil-maratza.

Ardao bat arren, eskabidea
egin dautsot, sar-berri nazala.
Itzik ez andrak eta kalera-
bidez nik "Ongi geldi" zabala.

Gure Lagunak

Bilbo'n, Dr. Areilza 27-an
izen orretako edantoki bat.

Ardantegi estu-illuna,
edale bakan ta ixil
batzuk patxadaz begira.
Euskal-kantak jotzen dabil

jo-gaillua bazterrean.
Orman zintzillik ikurrin
zuri-gorri-orlegia itz
onekin: Euskeraz egin.

Ugazabandra maratza
suetean sal-maitik ur,
zenbat danari begikun
zorrotz eta berba labur.

Euskaldun lurraren adar
ontan edan neutzun, bizkor,
ardao baltza ta arrazaren
indarra ta ixilla, Aitor!

Kai Eder

Plentzi'n, KAI EDER etxean idazkun au dirakurkezu:
"KAI EDER'ekuak itsasoko gizonai"

Kai-Eder bazkun-etxea
Plentzi zarreko iz-ertzean.
Itsasoa mosuz dabil
erri-ezpan dan ondartzan.

Goiz ta arratsalde alkarri
kutunka, ixil ta naro.
Bitartean atzerriko
giza-aldra andiki digaro.

Itsas-legorrak jarraiki
ixilleko laztanketan.
Euskaldunok Izadia
miiñean ez, erraietan!

Erloju Geldia

Elorrio'n, Udaletxean, eguzki-erlojua geldi
dago, ardatz gabe, idazkun onegaz: año 1773.

Urteak dirala esku
ezezagun batek jarri
zinduzan or, joandako
aldian erakusgarri.

Ordukoak ba-zekiten,
zuri begira, orduak
bereizten, noiz zan goiz eta
noiz jo oi zun arrats-apalak.

Gaur egunean ardatz gaberik
ordurik-bizitzarik ez.
Gure erria ardatz-ezaz
geldi dakusgu, zu legez.

Erregutu Gugaitik

Amoroto'ko illerrian, ateburuan, izki baltzez
idazkun au da:

"erregutu
gugaitic"

Nireak lako odol-azurrak
bizi izan zenduezan
arraza baten anai maiteak,
ikara dut biotzean.

Mendi-ibai-aize ta izkuntza bera
gogo-girotzat dudala
bizi natzue, goi-arrangura
ta lur-pixu daridala.

Bai, zuen alde otoi dagiket
bizitza onetan zear.
Ta, egun baten, lurpean laket
zuekin berotuz alkar.

Ikaslearena

Euzko ikastolara zatoz
aurrak inguruz, astiro.
Semeak gela batera,
zeuk nagusiakaz giro.

Aiek barrez, zarataka.
Zeu ixillik, gogoetan.
Itzak nekez ikasi ta
irritsu erantzunetan.

Alantxe azi oi dira
sail oparoak emeki:
maite-goldeaz, itxaron-
euriz, euzko emazteki!

Ugalde'tar Ainara'ri

Gora ta bera
ugiñak dantzan.
Aurrera-atzera
uiñak ondartzan.

Euzki epela
ta muxugorri,
urrundu-ala,
poz eta irri.

Ugiñak legez
Ainara dabil.
Ni adi, pozez,
begiak pil-pil.

Donibane'n,1974-ko
uztaillak 6

Inguru-Dantza

Argia euskal dantzari taldea
Bilbo'n 1970-ko maiatzaren 10-gnean,
Coliseo Albia'n.
(Iribas'eko Ingurutxoa)

Neska-mutillak inguruz nasi,
anka-arin, beso-garai.
Beatzak bizkor, gerriak zaillu,
txistua ainbat mosu-alai.

Txistua zoli, soiñak jauzika.
Eskuz, aldizka, alkarri
edo gerriari loturik ibil.
Abendats ingurumari.

Ikusle-batza adi-ixillik,
dantzari-taldea irritsu.
Itz gabe alkar ulertu, noski.
"Laster dator...", biok gartsu.

Ziri-Bertsoak

Gazteiz'ko apaizgaitegian, lenengo erderaz, gero lateraz, azkenik euskeraz idazten saiatu nintzan. Erderazko guztiak sutara bota nitun euskerari tokia egiteko. Gaur papel zarren artean laterazko ale batzuk arkitu ditut. Or doaz, ezertan irakurgarriak ba'dira.

Sarrera-itzak ere ordukoxeak dituzue.

Nonnulli amici cum vocem spargerent latine versus me componere, ipsique, qui hispanice pravos confecerant, palam acriter me deriderent, hoc scripsi:

Nonnullos ego pessimosque scribo
Versus; sed venia est mihi sodales:
Non illos ego lingua mea sed
Externa facio nec usitata.
Plures sunt alii, atque vos eorum,
Qui scribunt patria faciuntque peius.

1950

INSTITUTO LABAYRU IKASTEGIA
EUSKAL BIBLIOTEKA
BILBAO

Barakaldo'ko

ANGEL ALONSO'ri

In amicum saepissime me deridentem ob quos composueram latine versus:

Cur mittam tibi sex versus hos, Angelus
[iste?
Causas exponam protinus Angelus hic:
Poetam te mirum putas, cum pessimus
[adsis.
Quos scripsi versus conscius haud colui
Ut cum haec carmina, quod mea, gaudens
[legeris usque
Credas te mirum, te unicum ac optimum
[etiam.

1950

Galdakano'ko

IBARRA'TAR IÑAKI'RI

Inter meos amicos quidam fuit olim arrogans et fatuus; hic enim altus erat et satis quidem, sed nequaquam tam ut ille sese ducebat. Qui, orta cum aliquo controversia, vehementer disputans semper ceteros despiciebat seque ipsum ecferebat, pro longitudine ad omnia egregium virum credens. In eum igitur hoc epigramma risu potius quam invidia et odio permotus scripsi:

Crescere desine jam, longissime. Desine
[cautus,
Indignos nisi tu lumine nos reputes,
Nam longissimus es stellasque extinguere
[possis
Caelumque invitus vertice deicere.

1950

"perto dos homes que sofren longo
unha historia contada noutra lingoa"

(Celso Emilio Ferreiro)

A

María Pilar Prieto García.

Teño o peito de
coita ferido,
teño o peito co
gozo fendido.

Cando punxir a
espiña sento,
tráiote lene
no pensamento.

Estonces nova
forza m'invade,
tornase mel a
miña saudade.

Lobos salvaxes

Coma lobos salvaxes que
oubean a miña ánima,
eles me cercan embafados,
coma feras coa rabia.

Como eles non a teñen
a miña ánima degoran,
so pra que eu non a teña
e logo fartos a soltan.

Como lobos sinistros me
bouran, seus dentes malinos
m'amostran... A miña ánima
degoran os malparidos...

A miña ánima a coidan
ben os meus sofrimentos.
Non a tocaredes nunca,
que sofrindo a defendo!

Algorta, 8-XI-74

ARKIBIDEA

Nire Biotza 5

Nire Gogoa 17

Nire Lurra 37

Ziri-Bertsoak 49

Gallegoz 55

AGERTUTAKO IDAZTIAK

1. Phedro'ren Alegiak I.
2. Martzial'en Ziri-Bertsoak (agortua).
3. Phedro'ren Alegiak II.
4. Fatima'ko Ama Birjiña ta Umeak.
5. Euskal Iztegi Laburra (A).
6. Esopo'ren Alegiak.
7. Agustin Deunaren Eskutitzak (agortua).
8. Gurutz-Bidea.
9. Phedro'ren Alegiak III.
10. Batikano Agiriak I.
11. Perrault'en Ipuiñak.
12. Batikano Agiriak II.
13. Apuntes de Vascuence. Curso II (agortua).
14. Lope de Vega-Bakar-Autuak.
15. Liturji-Goratzarreak I.
16. Batikano Agiriak III.
17. Maitale Galdua.
18. Lati Izkuntzaren Joskera (Orixe).
19. Euskal Iztegi Laburra (B-D).
20. Batikano Agiriak IV.
21. Euskal Iztegi Laburra (E-F).
22. Basoko Loreak.
23. Lo ta Amets.
24. Apuntes de Vascuence. Curso I.
25. Katalunya'ko Olerkariak.
26. Bidaztien Aterpea.
27. Apuntes de Vascuence. Curso III.
28. Euskal Iztegi Laburra (G-I).
29. Galburutan (Gallastegi'tar Kauldi).
30. Euskerazko Meza (Intxausti'tar Artur).
31. Humanae Vitae.
32. Euskal Idazleak (Mendiburu'tar Sebastián).
33. Gabon Abestiak (Intxausti-Gallastegi).
34. Españi'ko Olerkariak I.
35. Prantzi'ko Olerkariak.
36. Españi'ko Olerkariak II.
37. Euskal Idazleak (Añibarro'tar A).
38. Kibero'ren Eskutitzak.
39. Ezpata Zorrotza. Ezkutuko Aria.
40. Andersen'en Ipuiñak.
41. Sortaldean-Gabon Abestiak (Gallastegi-Bengoa).
42. Ego Amerikako Olerkariak.
43. Martiriei (Tertulian).
44. Liturji-Goratzarreak II.
45. Espaiñi'ko Olerkariak III.
46. Euskal Idazleak (Juan de Tartas).
47. Euskal Iztegi Laburra (J-K-L-LL).
48. Gogoetan (Olabeaga'tar Iñaki).
49. Batikano Agiriak V.
50. Amets eta Egi (Gallastegi'tar Kauldi).
51. Euskal Idazleak (Basabe'tar Kandido).
52. Maite Dedana (Olabeaga'tar Iñaki).
53. Laiño-Odoletan.